

Euskararen eguna(K) 2015

Euskara ari du Hernanin

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna, zita inportantea dugu Hernanin. Urte askoan zehar gure herriaren hizkuntza, euskara, bizitzako esparru guztietan normaltasunez erabil dadin, lan asko egin dugu. Erakundeen aldetik ez ezik, herritar boluntarioak ere buru belarri aritu dira eta ari dira Hernanin zeregin horretan. Eta asko aurreratu dugu. Egun hauek badute, beraz, ospakizunetik.

Izan ere, zeinek esan orain dela 30 urte, euskaraz bizi ahal izango ginela Hernanin? Ikasketak, kirola, erosketak, udal tramiteak, parranda, lana... euskaraz egin ahal izango genituela.

Urrats handia eman dugu. Jende ugari ikasi du euskara herrian: kanpotik etorriak, batzuk, bertan jaioak eta euskara galdua zutenak, beste batzuk. Nork ez du inguruan ama, amona, osaba, laguna, lankidea... euskaldun bihurtu dena. Sekula zahartuko ez ditugun euskaldun "berriei" eskertzeko asko dugu. Eskerrik asko denoi!

Eta gure eskerrik beroena, baita ere, erakusten, ikastera bultzatzen eta animatzen, euskarari eusten saiatu diren euskaldun "zaharrei". Ofizioz edota borondatez, jo eta su aritu diren eta ari diren herritar guztiei. Biba zuek!

Ez da makala izan denon arteko ahalegina. Eta emaitza, pozik egotekoa: %80 baikara, dozena bat hizkuntzatik gora hitz egiten den gaurko Hernanin euskaraz hitz egiteko edo, gutxienez, ulertzeko gai garen herritarrek.

Dena ez da, baina, ospakizuna. Euskararen Egunak Hernanin badu erreibindikaziotik ere, aldarrikapenetik, erronka handia baitugu aurrean eta zera da: EUSKARA ERABILTZEA, DAKIGUNA ahal dugun leku eta une guztietan ERABILTZEA. Horixe da oraindik euskara ikasi ez dutenek ikasteko duten modu bakarra, ez diezaiegun eskubide hori ukatu.

Hernanin euskaraz natural-natural bizi nahi dugu.

Heldu erronkari.

Euskara ari du Hernanin
Herriko ikastetxeak, euskaltegiak, euskara elkarteak eta herritar boluntarioak
2015eko azaroan